

## Izuaz hil

TXILLARDEGI



«Si Txomin viviera, se moriría de susto». Ardanzak, saldua izateaz gain, zirtolari fama hartu nahi du oraingoan...

Berriro ere burujabetzaren aurka mintzatu da México. Ez baita PNVko buruzagien artean lehenengo aldia. Nor ez da oroitzen «la independencia nos llevaría a comer berzas» famatu hartaz?

PNVak ez du independentzia nahi, *dependencia* baiziki: Madriletikoa morrontza, hain zuzen (Pariskoaz gogoratu ere ez da egiten). PNVa eroso senditzen da Espainia barruan, eroso gaztelaniaz mintzaten, eroso bakantzak Espainian barrena pasatzen. 'Eroso' ez, PNVa cómodo atxematzen du bere burua Madrilen eta PSOEren eskutik.

PNVa errejonista espainola da, errege-zalea da, eskuindarra osoki (Guggenheim-en arazoan ezin garbiago erakutsi duenez), anti-*euskalduna* (gure hizkuntza nazionalaren etsaia, bai; arazo hori ez baitago Marikamen Garmendiaren eskutan, Buesarenetan baiziki), anti-*abertzalea* (zer da abertzaletasuna independentziaren aldeko borroka besterik?), anti-*langile* (PNVak jauntxoak eta areto dotoreak maite ditu, eta botere ekonomikorik gabeko jende xehea mespreztatzen), eta espainiar legerikeria guztien zerbitzari tinko.

Hitz batez, berriro ere bestetan esandakoa errepikatuz, PNVa 1992ko partidua *karlista* da; eta Arzalluz, Tirsó de Olazabalén semea.

Are okerrago, PSOEko (edo PPko) jendea hemengo industriaren suntsiketa nahi izateaz, ulergarria da: «a ver si emigra la gente, se vacía de una vez ese nido de víboras, y tenemos paz». Baina oraingo *dekalabro ekonomikoa*ren Madriliko agintearekin baturik dirauen partiduak, ez du herri honen *gorrotoa* besterik merezi.

Piztuz gero Txomini zer gertatuko ote litzaioken ez dakigu. Baina Arana-Goiri piztuko balitz, eta Arzalluz eta Ardanza PNVren izenean mintzo entzungo balitu, karkaxa galantak botako litzuzke jendillaje horien aurpegira.

## Ihaute eriak

JOXERRA GARZIA



**PATETIKOA.** Beste hitzik ez zitzaudan burura etortzen, autoan nindoala, Elena Azpiroz zinegotziaren esanak entzutean, irratiz.

Ahalegin guztiak egin behar ditugu, hemendik dei egiten diet donostiar guztiei, ea jendea animatzen den... zer, eta ihauterietan parte hartzea. Ikastolako irakasle saiatua bere ikasle diglosikoei euskaraz hitz egin dezaten nola saiatzen den, halaxe zinegotzi arduratsua hiritarrek. Patetikoa

Zer ote dute agintariak horrela bultzatu nahi duten festa batekin? Ezeren deusik ez, jakina. Subertsioaren festak dira ihauteria bere sorreran, eta ez moda-desfile hutsa. Arauak (arau batzuk behintzat) haustako behin-behineko parada eskaintzen duen festa zen ihauteria bere sorreran. Ez diot orain ere beste horrenbeste behar lukeenik, baina boteretik halako interes handia auzaltzeari susmagarri deritot, patetikoa ezeki.


Herriak gogoaz zuten orduan ihauteri festa sortzen zuten garai ilunetan, botereak debekaturik zituen ihauteriak. Orain, berriz, ez bide da ezer sortzen, eta agintariak erukitu egiten dira. Urtean behin moztorra jantzi dezagula agintzen digute.

Patetikoa, benetan. Lastimagarria.

## egin

### Tentsio giroa

Disimulorik gabeko EAJren morrontza jarrera dela medio, Espainiako Gobernuko alderdiarekiko —erabatekoa norabide zehatzetan, fidela PSOEren besoaren luzapena ordezkatzea proposatzen zaionean honek bere kabuz lortu ezin duenean— Lurraldeakoei ere zalantza handiak dituzte jeltzaleen azken erabakiari buruz autobidearen gatazkan. Galdosen alderdikoei ziurtatu egin zieten, iturri batzuen arabera, trazaketari buruzko bi aldeen arteko akordioa egingiza burutu zela. Akordio hori gauzatzeko epeari buruzko konpromezurik ezean eta herri mugimenduen eta alderdi desberdinen arteko harremanen emaitza jakin ondoren, gizarte mugimendu horretan sentsibilitate neurtzea, egungo egoeraren norabide optimista alda dezaketen faktoreak argi eta garbi ikustea da. Lurraldek da-




torren larunbatean egingo du batzarra.

J. IRATZAR

### LAVANGUARDIA

### Nazionalismoaren indarra

Badakit askok uste izango dutela Kroaziak armekin defendatu izan ez balu modu demokratikoan aldarrikatutako independentzia, ez zela inoiz Serbiako menarapenetik bananduko. Egia da. Eta noizbait Bosniak atzo erreferendumean onartutako independentzia de-



fundatu beharra badauka, hala egin behar izango du, betirako Serbiari atxekita geratu nahi ez badu.

Egunen batean Ukrainiak subiranotasuna modu militarrean defendatu behar izango du, Errusiako botere atxekitzailen historikoaren aurka.

EDITORIALA

### EL DIARIO VASCO

### Mobilizazio eta luebakiratzeak

HBri eskuak luzatzea kome-nigarria dela esan ohi da, horren



GALLEGO & REY / DIARIO 16

barruan eta ETAn bertan mugimendu disidenteak sortzeko. Iritzi berekoia da, logikarik gabea. Argi dago inguru horretan atentatekin segitzearen aldekoek agintzen dutela. Amore emate oro, edozein izanda ere, beren garaipen moduan hartzen dute, izuaren metodoen eragin-kortasunaren froga moduan. ETaren barnean egon daitezkeen kritikoak, egon baleude, laguntzako modurik okerrera da. HBk isolamendua saihestu nahi du ETArekin duen harremana apurtu gabe. Eta hori izango litzateke bere arrakastarik handiena.

JOSE LUIS LOPEZ DE LA CALLE

## ZUZENDARIARI

### Iruñeako alkateari zenbait galdere

Aurreko txapelketan bezala, oraingoan ere, irailen eta urriaren ordu asko pasa nituen Udaletxeak antolaturiko '1991ko artista gazteen lehiaketan' lan bat aurkezteko. Urriaren azken aldera, txapelketako arautegia betez, Nafarroako eta Iruñeako beste gazte asko bezala, nire lana zuen eskuetan utzi nuen, Iruñeako Udaltxean.

Lau hilabete pasa dira geroztik eta denboraldi honetan horietako sari batzue eman dira, kasualitatez gaztelarazko sariak noski (San Saturnino egunean Udaltxean). Aurreko txapelketan (1991. urtekoan) sariak, bai euskarazkoak eta gaztelarazkoak, egun berean eman ziren, San Saturnino egunean. Nik dakidanez, euskarazko lanen sariak luze baino lehen emateko asmo handirik ez da.

Alkate jauna: Udaltxean gero sarituko ez dituzten txapelketak antolatzeko aldituzue? kasualita-

tez al da gaztelarazko sariak eman izana eta euskarazkoak ez? Euskarazko lanei beren balioa ez al diezue eman behar? Araza konpontzeko inongo asmorik ba al duzue? Gaurko honetan ere luze baino lehen erantzun bat izango dudalakoan agur t'erd.

M.G.G.

Iruñea

### Atxiloketak eta inkomunikazioa

AEK-ko Lizardi euskaltegiko ikasle eta irakasleok Felix Gonzalez Huidobro, gure ikaskidearen eta beste lau barakaldotarren atxiloketa eta inkomunikazioa dela eta asanbladan bildurik berriarekiko gure elkartasuna adierazi eta azkenaldiotan gure Herrian sarritan gertatzen ari diren atxiloketa arbitrarioak salatu nahi ditugu.

Halaber salatzen dugu antiterroista lepegean ematen den inkomunikazioa, non inolako defentsarik gabe daudelarik, epailearen esku egon arte frogatu gabe dauden ekin-

tzak lepora diezaizkiekietan.

Era berean, azkenaldian Bizkaian atxilotutakoek jaso zituzten tratu txar eta torturak askatu zituztelarik, orainxe bertan Barakaldoko bost atxilotuak jasan dituzketen baldintzei buruzko gure kezka larria adierazi gura dugu.

Halaber, Felix gure ikaskide eta beste lau atxilotuen askatasuna eskatzen dugu.

AEK-KO LIZARDI EUSKALTEGIKO IRAKASLE ETA IKASLEAK

Bilbo

### Oharra:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean. Laburu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea. Jasotako eskutitzak ez zaizkio itzuliko idatzi dituenari.*

## GAIA JARRITA



### Bosnia independentea

Orra, orra bosniarrak libre ez genekien baina burukatu dabe bozkatu ta gehienak baietzaren alde jadanik ez ditugu gehiago mirabe laster izango dira herriaren jabe gu ere haiek legez geundeke askoz hobe KRISTINA MARDARAS

Administrazio Kontseilu Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALARRA

Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIAN ETXIZAHARRETA INAKI URIA

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E  
Leger Gordailua: SS 800/90

### HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxe: 36 54 93

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxe: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxe: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78 / 79 / Faxe: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskua. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxe: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11